



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2017ko urriaren 31, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:20

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Iñigo Arruti Agirre eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Jose Angel Iparraguirre Alberdi zinegotziak (Orain) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2017ko urriaren 10eko ezohiko bilkurako aktaren zirriborria.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Obrak, Zerbitzuak, Kirolak eta Gazteria batzordeko buru kargua dedikazio partzialarekin betetzea.
- 3.- Onartzea, egoki bada, udal aurrekontu propioaren 5/2017 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 4.- Onartzea, egoki bada, udal aurrekontu propioaren 6/2017 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2017KO URRIAREN 10EKO EZOHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORRIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2017ko urriaren 10ean egindako ezohiko bilkurako akta.

Emeterio Iribar zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du alkatearen erabakia udalbatzarraren ezohiko bilkuretako gai-zerrendan eskariak eta galderak ez sartzeko ez datorrela bat udalbatzarra osatzen duten kideen gehiengo absolutuak defendatzen duenarekin eta, gainera, herritarren parte-hartzea sustatzeko irizpidearen kontra dagoela.

Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du udalbatzarretako gai-zerrenda prestatzeko eskumena alkatetzari dagokiola toki-araubideko lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, eta zinegotziei eskatzen die legez eta arauz berari dagokion eskumen hori errespetatzea.



2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, OBRAK, ZERBITZUAK, KIROLAK ETA GAZTERIA BATZORDEKO BURU KARGUA DEDIKAZIO PARTZIALAREKIN BETETZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2017ko urriaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Eugenio Cotado Iturain zinegotziak (EAJ) %25eko dedikazio partzialarekin betetzea Obra, Zerbitzuak, Kirolak eta Gazteria batzordeburu kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 20. mailarekin (urteko zenbatekoa 11.531,52 euro).

Eugenio Cotado Ituraini alta emango zaio Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean eta Udalak hartuko du bere gain enpresari dagozkion kuotak ordaintzea.

Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) egindako galderari erantzunez, Eugenio Cotado zinegotziak erantzuten du Obra, Zerbitzuak, Kirolak eta Gazteria batzordeko bilerak gaien arabera egingo dituela, bilkura espezifikotik: obra eta zerbitzuetako gaiak, alde batetik; kirolakoak, bestetik; eta gazteriakoak, bestetik.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL AURREKONTU PROPIOAREN 5/2017 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 5/2017 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 21.240 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2017ko urriaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2017ko aurrekontuari dagokion 5/2017 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 21.240 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza



b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL AURREKONTU PROPIOAREN 6/2017 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 6/2017 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 90.555 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2017ko urriaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2017ko aurrekontuari dagokion 6/2017 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 90.555 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailatza

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.



c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du zuzena iruditzen zaiola gizarte ongizateko alorrean bi partida mantentzeko erabakia (1.000 euro gizarte ongizateko jardueratarako, eta 10.000 euro etxez etxeko laguntza-zerbitzurako). Adierazten du bere talde politikoa ez dagoela ados, inolaz ere, gizarte ongizateko partidak murriztu eta diru hori, esaterako, erretenak, espaloiak edo antzekoak konpontzeko erabiltzearekin.

Emeterio Iribar zinegotziak esaten du, baita ere, bere talde politikoa zain dagoela oraindik, alkateak noiz erantzungo udalbatzarraren 2017ko maiatzaren 30eko bilkuran egin zizkioten galderai, eta dagoeneko hirugarren aldia dela galdera horiek egiten dituztela.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSOEren izenean, eta honako hau adierazten du:

1.- Ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, 2018ko urtarrilaren 1etik eragina duena, udalbatzarraren 2017ko urriaren 10eko ezohiko bilkuran onartu zen. Nabarmenezkoa da Izaera Urbanoko Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren %50eko erreklargua onartu zela 'etxebizitza hutsentzat', proposamen hori lehendik datorrelako: EH Bilduk eta PSE-EE-PSOEek planteatu zuten 2016ko eta 2017ko ordenantza fiskalen aldaketa diktaminatzerakoan. Anak, azkenik, azpimarratzen du Udaleko zinegotzi guztiek lortutako aho batezko akordioa, 2018ko ordenantza fiskalen gaiari lehen onarpena emateko.



Segidan galdetzen dio EAJri ea zein udal proiektu (esaterako, ordenantza fiskalak, aurrekontuak eta abar) ez den aurrera atera gehiengoa daukan oposizioak kontrako botoa eman duelako. Ana Priedek eskatzen dio EAJri aurkezteko udalbatzarraren aurrean adibide bakar bat.

2.- Alkateari galdetzen dio ea zergatik ez den aurten Pertsonaleko batzordeko bilkura espezifikorik egin 2017ko udaldiko langileen kontratazioa eztabaidatu eta diktaminatzeko. 2016an egin zen eta aurten ez da egin. Zergatik?

Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du ez daukala gogoan Pertsonaleko batzordeko bilkurarik egin izana udaldiko langileen kontratazioa eztabaidatu eta diktaminatzeko, eta ez dakiela zergatik.

3.- Euskara eta hezkuntzari dagokionez, Udalaren 2016ko aurrekontuan partida bat sartu zen, ikastetxeetan bide-heziketako ikastaro bat egiteko ikasleentzat. Ikastaro hori baloratu egin behar zen gero eta berak planteatu zuen horren gastua Udalak eta ikastetxeek sinatuta dauzkaten hitzarmenen bidez finantzatu daitekeela.

Segidan, galdetzen du ea non eta nork erabaki duen 2017an bide-heziketako ikastaro hori martxan jartzea.

Aitziber Campos zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere gain hartzen duela gai hori aztertzeke Hezkuntza batzordeko bilkurarik ez deitu izana. Adierazten du bere alabaren bitartez jakin zuela aurtengo ikastaroaren berri eta egia dela Hezkuntza batzordean ez dela gai hori aztertu.

Ana Priedek galdetzen die EAJko beste zinegotziei ea zerbait badakiten bide-heziketako ikastaroaren gaiari buruz, eta inork ez daki ezer.

Alkateak erantzuten dio aztertuko duela ea nola antolatu eta egin den bide-heziketako ikastaroa 2017an.

4.- Merkataritzari dagokionez, galdetzen du ea zergatik dauden jarri gabe merkataritzako kartelak. Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ) erantzuten dio eskaria eginda dagoela eta urtea bukatu aurretik jarriko direla.

Eli Bello zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du ez dakiela zergatik dauden jarri gabe merkataritzako kartelak eta esaten du gaia pasa egingo zitzaiola.

5.- Urriaren 21eko batzordean diktaminatutako 'Kalefood Market' ekimenari buruz Ana Priedek galdetzen du ea zergatik ez zen egin abuztuan, hasieran aurreikusita zegoen bezala. Eli Bello zinegotziak (EAJ) erantzuten dio abuztuan ezin izan zela egin, jardueraren bultzatzaileei ezinezkoa zitzaielako.



6.- Tren turistikoari dagokionez, adierazten du gai hori, lehen, Merkataritza batzordean aztertzen zela eta galdetzen du ea orain zein batzordetan aztertzen den eta nork erabaki duen aldatzea.

EAJko zinegotziek adierazten dute ez dakitela zein batzorde arduratzen den tren turistikoaren gaiaz.

Anak esaten du 2017ko udan tren turistikoak Anibarko Portua auzoan ematen zuen zerbitzua bertan behera utzi zela, Kultura batzordean erabakitakoaren kontra. Erabaki hori alkateak, udaltzainburuak eta udal kanpineko zuzendariak hartu zuten, trenaren arazo mekanikoengatik eta segurtasuna bermatzeko, eta ez zitzairen horren berri eman beste zinegotziei. Gainera, Anibarko Portuko bizilagunek idatzi bat aurkeztu diote Udalari, tren turistikoaren zerbitzua bertan behera utzi izanaren arrazoiak azaltzeko eskatuz, eta idatzi horrek ez du, gaurko egunez, inolako erantzunik jaso.

Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du berak hartu zuela Anibarko Portua auzoan tren turistikoak ematen zuen zerbitzua bertan behera uzteko erabakia, trenak arazo mekanikoak zituelako eta segurtasuna bermatu behar zelako, eta ez zerbitzua gutxi erabiltzen zelako. Adierazten du bere gain hartzen duela Kultura batzordearen diktamena ez errespetatzearen ardura eta nabarmentzen du toki-araubideko lege-xedapenek ematen dizkioten eskumenak baliatu zituela erabakia hartzeko.

7.- EAJri eskatzen dio, 2018ko udal aurrekontuaren proiektua aurkeztu aurretik, bilera bat egiteko gehiengoa daukan oposizioaren ordezkariekin, alde aurretik 2017ko aurrekontuaren exekuzioaren balantzea egiteko.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,